

Hizkuntza-ikastaroak, Fundazio Akziodunekin elkarlanean antolatutako udalekuak eta kirol-, arte- eta teknologia-jarduerak

Kutxabanken Gaztedi Programak bere ohiko jarduerari ekin dio berriro 1.500 plazarekin 2022rako

- Programak 8 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat dira, eta izen-ematea Kutxabank Taldearen Interneteko atarian egin daiteke, 'Familiak' atalean
- Gaztedi Hizkuntza Programak 800 plaza eskainiko ditu udako ikastaroetarako
- Uda eta Aste Santurako udalekuen aukera zabala eskaintzen du programak, eta urte osoan zehar egiteko kirol-, arte- eta teknologia-jarduerak

2022ko martxoaren 9an. Kutxabanken Gaztedi Programak **bere ohiko jarduerari ekin dio berriro** bezero gazteenei zuzendutako jarduerekin eta **1.500** plaza eskaintzen ditu 2022rako. Aurten, Gaztedi Planen titularrez gain, funtsen titular diren adingabeek ere aukera izango dute jardueretan parte hartzeko.

Katalogoa, bertsio digitalean, erakundearen webgunean dago eskuragarri, eta kolektiboko bezeroek postaz jasoko dute liburuxkaren bertsio laburtua QR kode batekin, beren probintziako jarduerak ikus ditzaten, baita posta elektronikoz newsletter bat ere, informazio guztiarekin.

Berriro izango dira hizkuntza-ikastaroak atzerrian

Kutxabankek **atzerriko hizkuntza-ikastaroen** ohiko eskaintza, pandemiaren ondorioz iaz mugatu zena, egiten du berriro.

Atzerriko hizkuntza-ikastaroek, 11 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduak, egonaldiak eskainiko dituzte egoitzetan edo familietan Erresuma Batuan, AEBetan, Maltan, Frantzia eta Alemanian. Gainera, hainbat helmugatan **First Certificate** atzerketa prestatu eta egingo da, egonaldiari etekin handiagoa ateratzeko.

Programak eta helmugak parte-hartzaileen adinetara egokitzen dira; ikastaro batzuk atzerriko lehen esperientziatarako gomendatzen dira, egonaldi horiek barnetegietan eta hurbilagoko tutoretzekin egiten baitira. Era berean, landa-inguruneetan eta giro lasaiagoetan ere eskaintzen dira helmugak, baita esperientzia hiritarragoak ere beste helmuga batzuetan, adibidez Dublin, Brighton, Oxford edo Ingalaterra Berrin, New Yorken bi gau barne.

Urtero bezala, **Tarazonako udalekuak** ere izango dira, 8 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzenduak. Ingelesa ikasteaz eta praktikatzeaz gain, egonaldiaz gozatuko dute futbol-eta errugbi-zelaiak, pilotalekua, saskibaloi-kantxa, aire zabaleko igerilekua, lorategi-guneak eta jolas-aretoak baitaude egoitzan.

Guztira **800 plaza** baino gehiago daude eskuragarri kanpamendu, egoitza edo familietan egonaldiak egiteko, eta **martxoaren 9tik** aurrera kontratatu ahal izango dira Kutxabanken webgunearen bidez, 'Familiak' atalean.

Fundazio Akziodunekin lankidetzan

Ohikoa denez, **banku-fundazio akziodunek**, BBK Fundazioak, Kutxa Fundazioak eta Vital Fundazioak, aisialdia eta balioetan hezteak, ezagutza zientifikoa eta ingurumenarekiko harremana uztartzen dituzten jarduerak eskaintzen dituzte.

BBK Urdaibai udalekuen 37. edizioa jarri du abian **BBK Fundazioak**. Formatu berria du aurtengoak, eta ingurumen-gaietara, batez ere klima-aldaketaren aurkako sentsibilizaziora, bideratu ditu bere jarduerak. Jarduera hau 7-13 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta aurten, berrikuntza gisa, elebiduna izango da, euskaraz eta ingelesez.

Beste ikastaro aipagarri bat **Kutxa Fundazioaren Eureka! Zientzia Museoak** antolatutako udaleku teknologikoak dira; ondo pasatzen duten bitartean ikasi nahi duten eta kezka berriak dituzten gazteei zuzenduta daude, eta haur eta gazteen artean zientzia, teknologia, ingeniariak, arte eta matematikarekiko interesa piztea dute helburu. Eureka! Zientzia Museoak udalekuak eskaintzen ditu Aste Santurako zein udarako eta izen-emateak datorren **martxoaren 11n** irekiko dira.

Estadio Vital Fundazioak, bestalde, Aste Santuan **Jolastokia Udalekuak** eta **Estadio Campusa** eskaintzen ditu, eta **Idiomas Vital Fundazioaren Explorers ikastaroak** udan izango dira, Gasteizen kirola eta ingelesa ikastea uztartzen dituzten udalekuak.

Gainera, 2022ko programan Gaztedi bezeroek eskolek eta prestakuntza-zentro laguntzaileek antolatutako proposamenak aurkituko dituzte, eta horietan deskontu handiekin parte hartu ahal izango dute. **Kirol-, arte- eta teknologia-**jardueren eskaintza zabala da, besteak beste, bela-ikastaroak, musika-udalekuak eta barnetegiak sartzen dira hor, beste proposamen askoren artean.

Kutxabanken webguneko 'Familia' atalean **bilatzaile aurreratu** bat dago, jarduerak errazago bilatzeko. Tresna honek **emaitzak iragazteko** aukera ematen du, lurraldearen, hizkuntzaren, adinaren, jardueraren prezioaren eta programaren datuen arabera. Era berean, hainbat jardueren gaiak modu bisualean aurkezten ditu, gaztetxoenen interesetara egokitzen diren programak errazago bilatzeko.